

Urrezko Aizkoraren finalean Aitzol Atutxa Zeanurin maiatzaren 9an

11. orrialdea

Lemoak Kultura Astea antolatu dau hilaren 11tik 17ra bitartean

Arratiako tranbiaren erakusketaren inaugurazioak emongo deuto hasikerea Aste Kultural honeri. Tranbiaren erakusketea Elizondo Kultur Gunean egongo da. Mendi ibilaldi, berbaldi, kontzertu, antzerki eta herri ginkana batek osotuko dabe eskeintzea. 12. orrialdea



Ibon Izaren Txakile filmak sari bi jaso dauz Bertsomoviedan

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

229

2015eko maiatzaren 4a
hamabostekaria
www.begitu.org

Arratiako ganadurik ederrenak ikusgai hileon hiru azokatan

Areatzan I. Ganadu eta Artisau Azokea egin dabe maiatzaren 3an eta Zeanurin azoka bi egongo dira: hilaren 9an Gorbeia Parke Naturalak antolatutako II. Abere Azokea eta San Isidro eguneko XXXIV. Abere eta Artisau Azokea.

Aprilaren 25ean Zeanuriko Zubizabal baserriak Euskadiko okeletarako behi esplotaziorik onenari saria jaso eban eta Ipiñaburuko gaztaitegiak esne ardien Bizkaiko onenari saria. Sari honek Eusko Jaurritzak eta hiru Foru Aldundiak emoten dabez. Sektorea Arratian harro egoteko moduan dago eta harrotasunez erakusten ditue baserriarrak euren produktuak azoketan.

Abere azokak loraldi moduko bat bizi dabe, gainera. Areatzan, herriko abeltzain alkarteak herrian bertan gura

izan dau azoka bat antolatu eta holan egin dabe hilaren 3an; Gorbeia Parke Naturalak antolatu dauana be barria da, aurten bigarrenez egiten da eta.

Baina bada gurean urte luzeetan egin dan eta izen handia daukan feria bat: Zeanuriko San Isidro eguneko. Bertan, ganadurik ederrenak eta baserriko produkturik onenak egongo dira eta baserriari lotutako hainbat ekin-tza egin ahal izango dira baserri munduan murgiltzeko.

5. eta 8. orrialdeak



San Isidroko ganadu azokea.

ARRATIA

Joskile Eguna

Aprilaren 25ean Gure Esku Dago ekimenak jentea bildu eban Areatza, Lemoa eta Zeanuriko plazetan, bagilaren 21ean hautestontzi erraldoiak egiteko erabiliko diran oihalak josteko. Sano balorazino ona egiten dabe antolatzaileak jentearen parte hartzea handia izan zalako. Holan, Lemoan, Bedia eta Lemoako 120 lagun inguru batu ziran; Areatzan, 100 bat persona eta Zeanurin 200 inguru. Kamiseta guztiak saldu ziran.

Diman Joskile Eguna maiatzaren 9an izango da. Arrastiko 19:30ean batuko dira plazan jai giroan oihalak josteko. Ondoren argazkia egin eta trikipotea egin dabe herrian zehar.

Bizkaiko Gure Esku Dagoko arduradunak Areatzako konparsaren erraldoi, buruhandi, txotxongilo eta hankapaluak Bilboko ekitaldi nagusian parte hartzeako eskareta egin dabe. 5. orrialdea

ZEANURI

Ipiñaburuko gaztaiak Espainiako gaztai keturik onenari saria jaso dau

Ipiñaburuko (Zeanuri) Jon Etxebarria eta Puy Arrietaren gaztaiak urrezko domina lortu dau Madrilan izandako Gourmetquesos izeneko lehiaketan. Hau da, Ipiñaburukoak Espainiako gaztai keturik onenari saria jaso dau.

Gaztai honek hainbat sari ditu, baita nazinoarteko mailakoak be. Igaz, World Cheese Awards Munduko Txapelketan be urrezko domina lortu eban gaztai ketuen kategorian. 7. orrialdea

ARRATIA

EH Bilduk alkategaiak aurkeztu ditu

Arratiako alkatetzarako hautagaiak aurkeztu ebazan EH Bilduk aprilaren 24an Igorreko Lasarte plazan. Honek dira Arratiako herrietan aurkeztuko diranak: Igor Menika (Arantzazu), Asier Garcia (Areatza), Igor Etxaniz (Artea), Janire Ansotegi (Bedia), Nekane Intxaurza (Dima), Beinat Anzola (Igorre), Saioa Elejabarrieta (Lemoa) eta Zedarri Jauregi (Zeanuri). Ubiden EH Bilduk ez dau hautagairik aurkeztu eta Zeberion Ana Belen Alberdi izango da zerrendaburu. 7. orrialdea

GIZARATERATZEA

Goi Mailako Zikloa

IZEN EMATE EPEA zabalik!

Deitu eta informatu zaitez!

Tel. 946 300 058
www.orueeskola.org

ORUE ESKOLA - San Miguel de Dudea, s/n - 48340 AMOREBETA-ETXAND

HOBETUZeko ikastaroak

GIZARATERATZE eta HEZKUNTZA arloa:

- Adimen emozionala
- Intervención social con menores en riesgo social
- Dolua eta galerak
- Musikoterapia en educación infantil
- Necesidades educativas especiales
- Jokabide arazoak dituzten pertsonekin esku-hartzea
- Gatazken konpontzea arlo ezberdinetan

Arlo SOZIO-SANITARIOA:

- Psicomotricidad en el anciano
- Alimentación oral y enteral
- Colaboración en la aplicación de las técnicas de aerosolterapia y oxigenación

LANEAN DAUDEN PERTSONEI ZUZENDUTAKO IKASTAROA

Lanbide

HOBETUZ

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

LEHENAGOKO BERBA ETA ESAKERA BATZUEN ERABILEREA (I)

Sarritan lagun bi edo hiru alkar-tzen gara eta lantzean behin, behinola Igorren eta Arratia inguruan erabilten ziran eta gero eta gitxiago erabilten doguzan berba eta esakerai, errepasso bat emoten deutsegu. Berba eta esakerok jagokiezan kontestuan erabilteko, oin dala ehun urte atzera bihurtzea izango dala egokiena iruditu jata. Hori holan dala, aiko hemez-zan gure personajeak: Joanikote, Mutruku eta Gartxon.

Joanikote: Txarrikume bi erosi behar joazat: bata ordotsa eta beste arkelea, ordotsa hamabi bat arroa hartzean jozakenean etxean hiltzeko; eta arkelea, aurrerantzean apoarengana eroan eta make-ratzat. Datorren zapatuan, hileko

bigarrena, Arantzazun dok feria eta bertara joango nok.

Mutruku: Neu be bañoak, ze behi antzu bat jekoat kentzeako eta ez jakiat biziterako edo okelarako salduko joaten.

Heldu dok feria eguna baina hara inor ez dok agertu esaneko ordurako, bakotxaren errazoiak edo atxakiak honeek zoazan:

Joanikote: Basora joan nok az-pigarri burkada baten bila eta etxe-rantzean, behiak hezi barriak dozak eta besaka batera eta bestera, burdia itzuli jakuk. Egoera haretan, behiak sama-hazurrak apurtuteko zorian egon dozak eta azkoreagaz hedeak eta burtadea ebagi behar izan jeutsiezat.

Mutruku: Neuk be hainbat

gauza egin joazat; txarriari mustu-rreran eraztuna sartu, induska egin ez daian, oiloen otea barrizta, az-piak atera eta porru hazia ereiteko, sats zaharra galbaigaz eralgi.

Gartxon: Neuk be zoezer egin joat; kuartea, gari neurria konpon-du, zelemin neurrien bila be ibili nok baina zurrun gainean baten itxita edo, ez joat aurkitu. Honan-tzean kimeletea eta eztena erosi joazat eta laratzua errementeria eroan joat, katea soldetako ze beharrezkoa joat, anabakea ga-naduentzat eta ozalea txarientzat egosteko.

Han jagoazan ferian, bakotxa bere zereginetan eta Gartxon han jenbilan, betiko moduan, "handikorik-hortiko", "bazterrik andan-

do" eta "nork gura presente", "urlia sandia eta mendiaren" zurrum-ruak jakin guran, ostean uxumuxu ibilteko.

Feriatik urtekeran esan joan euretariko batek: hartu jeguan zuri bana herriko tabernan eta Gar-txonek: Nok ordaintzekotan? Mu-trukuren erantzuna: oinbardin saltu laburren egiten jokenak. Posturea Gartxonek galdu joan, baina beste biak be erronda bana ordaindu jeurian.

Horretan jagozakela, badinok batek mostradorearen aldamentetik: honeek be gure antzeko zurrutariak dozak. Zuen antzeko zurrutariak bai baina zuen moduko hordiak ez, erantzun Mutrukuk betuleak izurtuta. Isiltasun latz eta labor baten ostean, esan joan Joaniko-tek: batengoagaitik "belea ez dok egingo baltzago" eta gaur tabernan bazkaldu behar joaguk. Gartxonek: Niri andreak etxera tertzioz joateko esan jeustak baina... Joanikotek: zer dok tertzioz joatea? Mutrukuk: abe-

marietarako joan ezker nahikoa dok eta berandu egiten bajakuk, galtzu eskuta batzuk hartuko joagu-zak zuzizat lastatiren baten.

Jantokian mahai inguruan jarrita, hiru-lau txalo jota, han agertu zoan irribarreka, oinetakoak sakadiz zi-tuala, Paskasi etxeanderea.

Mutruku: Zer dekona bazkaite-ko? "Inurrien garunak eta eperren kuntzurrunak", Paskasiren erantzuna. Mutrukuk: eskertuten jatana heure umorea baina jaukogun "tripa zorriagaz" ez gagozana txan-txetarako. Esan dokenatik, ekarriña azea garbantzuagaz eta arbigarak, bigarreneko txarri kaderak eta aitemoa buzkantzik badekona, gero arroz-esnea eta azkenez kafea, txingerragaz edo ilintiegaz sartu-urten bat eginda eta irazton-tzian irazita, ikatz zatiren bat iruntzi ez jeguan eta botila bat aguar-diente "txarria-hiltzeko" eta kopak txikerdikoak baino handitxoagoak, badekozana.

Felipe Barrenetxea Zamakona

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 4tik 10era
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 11tik 17ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 18tik 24ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urtekerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Praktiketako ikaslea: Irati Urien.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Jon Ururtxuru.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

ZEURE BERBEA

Zein da gazteen prekariedadearen prezioa?

Arratiako Udalen Mankomunidadeak Gaztedi Arratia programeagaz gazteok jasaten dogun langabezi gogorra estali gura dau. Beka honek ez dau enplegu duin eta iraunkorrik ziurtatuko. Eskualdeko gazteon langabeziatasa altua kontuan hartu barik, Lanbide, Eusko Jauriaritza eta Mankomunidadearen bitartez, beka-praktika honek eskualdeko 6 (6!) gazte baldintza prekariopean 6 hilabetez ipiniko ditu, hau langabeziaren kontrako formula izango balitz lez. Gazteok lan esku merke legez gura gaitue, baina ez gara boltsikoak kapitalez beteteko makinaria, ezta merkaturako tresna be. Prekariedade honen jomugan gazteok gagoz, eta zer esanik ez andra gazte eta migratzaileak.

Mankomunidadeak eskeintzen dauan progama honegaz, enpresak negozioa egiten dabe instituzinoetatik dirulaguntzak jasoz, eta kontratu mota honegaz beharginak ordeztuz. Gainera, beka-kontratuagaz baliatzen dira gazteok lan esku merkea izateko eta 6 hilabeteren ostean, lan-esperientzia bai, baina barriro, ezegonkortasuna eta segurtasun

faltea. Klean. Gazteok esperientzia hartu behar dogula esaten da, modu honetan prekariedadera ohituko garalakoan.

Beste alde batetik, atzerrira alde egitea da mahai gainean egunero daukagun igesbidea. Angel Toñak, Eusko Jauriaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburuak zera esan eban: "gazteok kanpora behar bila joan behar ez izateko, pazientzia eta sufrimentu apur bat gehiago jasan behar dozue". Hau entzunda ez da arraroa gazteak bertatik atzerrira migratzeak ordea ez dau esan gura topauko doguna ez dala prekariedade gehiago: atzerriko lan baldintzak gurearen antzekoak izan daitezke kasu askotan.

Atzerrira joatea aukera bat izan beharko litzateke gazteok esperientzia barriakaz aberastu eta ikasteko. Gaur egun ordea prekarizazioaren ondorio da, aukera bat baino kondena bihurtu da atzerrira joan beharra.

Gazteok gure bizi eredu propioa eta alternatibak eregitera goaz, baina horrek ez dau esan gura gazteok beste alde batera begiratu eta egungo instituzino sistemak darabilan politika prekarioa salatu behar ez dogunik.

Horregaitik, enplegua eta lana sustatzeko politika errealak eskatzen deutseguz Arratiako instituzinoai, baldintza duinak eta

etorkizunerako aukerak emongo dituana. Prekariedadea salatu eta jentartea erdigunean kokatzen dauan sistema aldarrikatzen dogu, zaintza eredu eta jentartearen ahalduntzean oinarritzen dana.

Enplegu planen helburua ezin da izan lanpostuak sortzea edozein preziotan langabezia tasaren datuak jaisteko asmoz eta Garapen Ekonomikorako ikuspegi soiletik egina.

Egoera honen aurrean, gazteok burujaube eta gure alternatiba propioak eregitera begira antolatu behar gara. Alternatiba eta eraldaketa soziala posiblea da, badaukaguz adibideak; auzo eta lur okupatuak, gazte espazio alternatiboak, gazte kooperatibak, irratik libreak... Zein da gure alternatibea?

Prekariedadearen aurrean gazteok martxan!

ARRATIAKO ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA

ARRATIAKO LAB

Gaztedi Arratia programea

Pasa dan martiaren 25ean, gutun bidez, Arratiako Udalen Mankomunidadeak Gaztedi Arratia Programea ezutera emon eutsen enpresa eta komertzioai. Baita sindikatuoi be eta, imajinetan dogu, beste eragile sozial batzuei be.

Gutun horretan Bizkaiko Foru Aldundiagaz egindako akordioa zehazten zan, Arratiako sei gazte langabetuk bekeagaz praktikak egiteko sei hilabetez zehar. Emoten dau praktika honeen helburua gazteen artean "beharreko lehen esperientzia" erreztutea dala. Gazteen langabezia benetako arazoa da Arratian.

Programa honetan parte hartuko daben enpresa eta komertzioen asmo honen inguruan polemika sortzetik urrun, sustatzen dan enplegu-politiken ereduaren eta honeek suposatzen dabenaren inguruan hausnarketea egin beharra dagoala irudituten jaku. Ez dogu uste biztanleriaren sektorerik ahulena, gazteriak esaterako, bizi daben egoera larria, atxakia danik edozein ekimen egokia dala ereisteko.

Instituzinoak daukien erantzukizuna kanpainetatik harago doa. Emoten dau honeen helburua kutsu elektoral eta partidista daben titularren beharrari erantzutea dala. Arratian behar egin eta bertan biziteko aukerea bermatzearan erantzukizuna ez da denpora zehatz baterako sei gazterentzako beka-programakaz eregiten.

Akordio sozialetara heldu behar dogu, tartean dagozan eragile sozial guztien konpromisoak jasoko dabezanak. Enplegu duina bermatzea moduko konpromisoak, ez

daitela beharreko prekariedadea sustatu ezta enpresarioen irabaziak laneko eskubideen gainetik ipini.

Atzen urte honeetan gure eskualdeak bizi dauan desindustrializazioa ez da amaitu, eta benetan gatxa dan egoera honeri erantzun beharrean, personok gero eta gitxiago ardura dogun eta merkantzia hutsa bilakatzen garan eredu produktibo eta soziala inposatzen ahalegindu dira. Ezin dogu onartu hau gertatuten dan bitartean instituzinoak beste alde batera begiratzerik eta ondino gitxiago euren erantzukizunari uko egin gura izatea, antzerako planak egiten dabizenaren atxakia ipinita.

Eusko Jauriaritza, Aldundia eta Mankomunidadea bera ez ziran Incoesaren deslokalizazioa gelditzeko gai izan, horren aurreko protokoloak izan arren. FCCgaz ziran dako kontratazioak be ez ebezan berrikusi Alfusen itxiera eragozteko... eta orain, Negarra, Ormazabal, Alyasa edo Araluceko Enplegu Erregulazio Espediente eta kaleratzeai buruz egin ahalko geunke berba.

Ondorioz, exijiduten dogu euren zatia onartu eta norabide barritik jarraitu dagien, kapitalaren diruzalekeriaren aurrean langileen eskubideak defendiduz eta ez daitela lan-erreformea ezarri, ezta zerbitzu publikoetan murrizketak egin eta enplegu publikoan errebersino mekanismoak jarri daitezala (privatizautakoa publiko eginaz), enpleguaren banaketa eta sorrera sustatuz. Honeek izango lirateke kalidadezko enplegu duinaren sorrera sustatuko leukien benetako neurriak. Borondate politikoa eukitea baino ez da falta.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Zeinda/zeinde



Gero eta gitxiago entzun arren, oraingoan zeinde berbea, zeinda idatzita, dakargu. Konparaketak zehaztuteko edo argituteko erabilten dogu zeinda (séinde, agoskatuta). "Modua", "lez", "antzera" edo "balitz lez" izaten ditu alboan beti. Esate baterako: "Europa dotorea hartu zenduen, zeinda gure jantzarien moduan, gaur baina eroaizuez frakabarrenok txapinen (galtzerdien) barruan sartuta!".

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enduak Batz gurea

MONDRAGON

LUMATUTEN



LEIRE ORUE

Azalean gertatzen dana...

Lehenengo bihotz tauparin eta jarriak, lehenengo amasketa librea, izango garran horregaz lehenengo kontaktu erreala. Bizitzaren biajea hasi eta eurak gure zain egotearen suertea euki dogu.

Gure oroimena selektiboa ei da eta errazoren bategaitik edo besteagaitik oroitzapen desbardinak dakarkuz burura.

Zelan ahaztu; ibili, jausi eta altzetearen lege horretan gure makulua izan diranak. Hanksartze bakotxaren atzean irakatsi bat eta besarkada bat dagozala ikusarazo deuskuenak eta mosu bakotxagaz barrua gardendu deuskuenak.

Egunerokoari aurre egiteko asteen baten sikaner dilistak jan behar doguzala, txupa txups-a jatearen aurre baldintza bitamina askodun platanoa jatea dala, egunero esne katilu beroa hartuteak hazurrak zelan indartzen

dauzan erakutsi deuskuenak eta hau guztiau txiki geratu ez geintezan, jakin barik horrenbesteko maitasunak ze handi egiten ginduzan.

Barikuak be nostalgiagaz gogoratzen dodaz, asteko egunik bereziena, arrastiko 16:30ean eskolako ateetan amama eta aitita nire zain egozala jakin be banielako. Gaur egungo publizistari onenen artean egongo neintekesaso haretan, inor gitxi geratzen zan Areatzan aitita eta amama nire bila etozela jakin barik eta.

Zelan eskertu ez, geugaz emondako ordu piloa, besarkada lasaigarriak, mosu sendatzaileak, egiazko laztanak baizik eta zelan eskertu garan hau. Ordutik hona emondako milaka pausuak bide desbardinatetik eroan nabe, biderik aldapatsuenak edo gogorrenak beti erreztu edo leundu ahal izan dodaz, izan be seinaka emoten izan dodaz pausuak.

Zelan eskertu? Ezer gitxi bada be zuon taupadak leuntzen edo moteltzen diranean nik besarkatuko dodaz, nazen honek zarien horretan bakarrik iraungo daualako bizirik.

Horregaitik azalean gertatzen dana, bertan hazi eta bizirauten dauana, sarritan azalean hiltzen da garan honetan.

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

1 Bertso honitan esangodana ezagune batzuentzat askok ta askok esangozue ene nilango beste bat danean parte hartu nahi eta ezta emoten denporak nahi dozu baina ez ezindozu ta irabazi baietzak.

2 Irati gaubon benganito naz ingozu hau ezta kit non eta burure tita batean bai ederto ahaldot egon gero fulano Irati egunon hau hara eroan ta emon guztien nahiak egin nahi eta danean gure ta inon.

Gaia jarrita: "Asko kostetan da baietz edo ezetz esatea?"

3 Askok lagundu egiten dabe ta esker onez zuk bardin gauzek hartu ta era berean bueltetan egin ahalegin ezetzak ezta inora eroaten baia batzutan nork jakin inon gustora inoz ezinda mundu hontan ezer egin.

4 Jende asko dau eurena egin ta lasai bizi direnak eurena nahiko eta zetako egin behar besteak gure inguruen pasetan dana bape ardure ezjakenak ta egunero gauetan ohira trankilo sartzen direnak.

5 Azken batean hori izingo da nik egin behako neunkena danari ezetz esan ta kitu albo baten itxi dena baina ez dakigu hori egiten hauxe da gure problema beste on topau gurean ateraz gure txarrena.

6 Ez dakit ondo azaldu dodan ta ulertu dauen inok tontotzat hartzen deuskuenari bideratute dauz berbok sarritan barre be egingo dabe gure desgraziez askok baina laguntza emoten bardin segidu gura dot.

BEGI TXINDORRA

Iñaki Uriarte eta Fernando Zuluaga, Otxandio eta Urkiolako parkearen artean dagoan Basaguren jatetxeko jaubeak, Zeanurikoak dira. Ostalariak, Altzuan dagoan txokoan lagunak bazkaltzea gustetan jakie, eta urtean behin behintzat hantxe batzean dira udabarri aldean bildotsa jateko.

Kuadrila ederra batu be! Uriarte eta Zuluagagaz batera, Juanito Oiarzabal, Jose Luis Mendilibar, Jose Luis Korta, Aitzol Atutxa, Kepa Atutxa, Mugertza anaiak eta Amando Larrea egon ziran beste batzuen artean.

Menua, bildotsa, tripotxak eta gatzatua izan zan. Zer hobeto ardien bazka diran Alzuako larre ederren artean?



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odotzargia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegatu Zerbitea 100
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA **SasoiBide**

Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel: 94 657 54 50

ZEANURI



Ganadu Azokea eta gehiago sanisidroetan

Hogeta hamalagarrenez baserri munduak Zeanuriko erdigunea hartuko dau. Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen XXXIV. edizinoan.

Erredakzioa

Azokan, baserri munduko jentek zein kalekoak behiak eta ardiak ikusi, gaztaia egiten ikasi edo herri kirolak ikusteko aukerea izango dau. Bezperan, Bilboko Txistulariak kontzertua eskeiniko dabe eta San Isidro bigarnerako, goitibehera lasterketa ikusgarria antolatu dabe Zeanurin.

Hainbeste sari irabazi dituan Ipiñaburuko gaztaia egongo da salgai azokan, eta Alzustako Zubizabal baserriko Rekalderen ganadua be bertan izango da. Ardien gobernua ikasteko hainbat erakustaldi egongo dira eta baserriko produkturik onenak dastatu eta erosteko aukerea be bai.

Arrastian, azokea amaituta, zer ikusi ez da faltauko, idi-proba eta

giza-probak egingo diralako probalekuan. Idi-probak azokearen hasikeratik ikusi daiteken ikuskizuna da, eta giza-probak igaz hasi ziran.

Zapatuan probalekuan indarra erakutsi, eta domekan ausardia erakutsiko dabe goitibehera lasterketako partaideak. Izan be, Oruetik plazara abiadura handia hartuko dabe goitibeherak publikoaren txalo beroen artean.

Andra Mari parrokan izango diran Udabarriko kontzertuak emongo deutsee amaiera aurtengo San Isidro jaiak.

Egitaraua

Maiatzak 14, eguna

19:30ean, Bilboko Txistularien Banda Kultur Etxean.

Maiatzak 15, barikua San Isidro Eguna

10:00etan, Abere, Artisau, eta Nekazal Produktuen Azokearen XXXIV. edizinoan. Azokan, honako ekintza honek egingo dira: ardiak eraitsi, gaztaigintza, Ardi Mozketa Lehiaketa eta herri kirolak.

11:30ean, mezea San Isidro eleizan.
12:30ean, Arrikibar jantza taldearen saioa plazan.

13:00etan, Ganaduen sari banaketea plazan. Etxe txukunenari saria eta Mixel lekuona II. Gaztai Lehiaketearen saria.

17:30ean, idi-probak probalekuan. Ondoren giza-probak.

21:00etan, amateur eta profesionalen pelota partiduak frontoian.

Maiatzak 16, zapatua

12:00etan, goitibeheren jatsierearen aurkezpena eta bidearen ikuskapena.

16:00etan, goitibeheren jatsierearen Oruetik plazara.

20:00etan, Udabarriko kontzertuak Andra Mari parrokan.

ziran Santikurutzeko ermitara elorria bedeinkatzera eta han, mezea entzun ostean, barauskarria izan eben trikitixearen soinuak alaituta.

Zeberion be bedeinkatu eben elorri zuria Santa Kurtze ermitan. Liturgiak bere egutegitik kendu dau jai hau baina gurean tradizioa dauka. Elorriak ortuan sartzeako bedeinkatzen ziran lehen, "ortuen zaintzarako" Juan Manuel Etxebarria etnolinguistek BEGITURI igaz adierazo eutsana lez. Auzuneko jaiak ospatuteko 3 egunetako egitaraua prestatu eben auzotarrak. Bertan ez ziran faltau lehiaketa gastronomikoak, herri bazkaria, trikitilari eta albokariak eta idi-probak.

Asentzio eta San Isidro

Hilaren 14an da Asentzio eta Zeberriko Uriondo auzunean ospatuko dabe ermitan mezea eta barauskarriagaz hurrengo domekan. San Isidro eguna, barriz, Ermitabarrin ospatuten dabe egunetan bertan.

IGORRE

AMEk webgune barria

Erredakzioa

Arratiako Merkatarien Elkartea (AME) webgune barria garatuten dabil. Zornotzako Batxilergo Institutuko Diseinu eta Garapen goi maila graduako ikasle bik, gradu mailako proiektua egiteko AMEko Arratek dendea aukeratu dabe eta bertan dabiz proiektua garatuten. Holan, AMEko merkatariak kontaktuan ipinteko, modu arin, erabilgarri eta moderno egongo da.

Maiatzaren 16an aurkeztuko dau AMEk webgunea "jentaurrean", Igorreko Kultur Etxean.

Horretarako udabarriko jaiak antolatu dabe, webgune barria aretoan ikusteko, Xaiborren eskutik kontzertu batez gozatzeko 19:00etan, eta ondoren, AMEk eskeinutako txokolatea dastatzeko.

Era berean, 210 euro zuzenean zozkatzeko aprobeixuak dabe. Zozketan parte hartuko dabe aurreko egunetan gehien gustetan jakien logoa bozkatu dabenak webgunean. Saria persona bakarrentzat izango da, 30 euroko baleetan bananduta, AMEko 7 establezimendu desbardinetan konsumiduteko.

ARRATIA

Diman Joste Eguna hilaren 9an



Oihalak eroaten Zeanurin.

Erredakzioa

Apirilaren 25ean Gure Esku Dago ekimenak jentea bildu eban herrietako plazetan, bagilaren 21ean hautestontzi erraldoiak egiteko erabiliko diran oihalak josteko. Diman, *Jentilak Diman* ikuskizuna zala eta, maiatzaren 9a atzeratu eben ekintza hau.

Dimoztarrak beraz, hilaren 9an arrastiko 19:30ean batuko dira herriko plazan Joskile Eguna ospatuteko. Atzen hilabeteotan alkarregaz betetako oihalak josi eta erabakitze eskubidea "Diman be gure esku dagoala" erakusteko helburuak be badiu zita honek. Oihalak alkarregaz josi ostean, talde argazkia egingo dabe eta iluntzeko 20:30ean trikipotea.

Balorazino positiboa

Areatzan, Lemoan eta Zeanurin apirilaren 25ean bildu zan jentea oihalak josteko eta balorazino positiboa egiten dabe antolatzaileak. Areatzan, 100 bat persona bildu

ziran erabakitze eskubidearen aldeko hautestontzi erraldoien oihalak josteko. Kamiseta guztiak saldu ziran. Bedia eta Lemoako jentearen partaidetza be handia izan zan. "Lemoan banandutako oihalak guztietan parte hartze zabala egon zan. Plazatik goizean zehar 120 persona inguru pasau ziran eta kamiseta guztiak saldu ziran". Zeanurin be parte hartze nabarmendu gura izan dabe antolatzaileak. "Guztira 10 oihala eta 200 pertsona inguru batu ginan. Oihalak bata bestea baino politagoak" Arrastian jaiak jarraitu eban ekitaldi, bertso, kantu eta jantzakaz.

Bagilaren 21era begira

Hurrengo pausuak bagilearen 21eko ekitaldian parte hartze antolatuta egongo dira bideratuta. Bizkaiko Gure Esku Dagoko arduradunak Areatzako konparsaren erraldoi, buruhandi, txotxongilo eta hankapaluak Bilboko ekitaldi nagusian parte hartzeako eskaerea egin dabe.

AREATZA/ZEBERIO

Elorri zuria bedeinkatzeko jaiak

Erredakzioa

Santa Kurtzeko ermitan Zeberion, eta Santikurutzekoan Areatzan, maiatza hasieran elorri zuria bedeinkatzeko ohiturea dago. Erritu honetaz aparte,

Zeberriko Santa Kurtze auzoan hiru eguneko jaiak izan dabez maiatzaren 1etik 3ra arte. Areatzan, ganadu azokea antolatu eben Karpon Santa Kurutzegunean.

Billaroztarrak bide zaharretik igon



Karpoko azokea.



DIMA/LEMOA

Egoera ekonomikoak onera egin dau Lemoa eta Dimako Udaletan

Erredakzioa

Lemoako EH Bilduk Udalaren egoera ekonomiko "ezin hobea" dala eta 2014ko amaierako datu positiboak emon dauz jakitera. Dimak be jakitera emon dauz bere egoera ekonomikoaren datuak. Alkatearen arabera "barri okerrak" argitaratu dira Dimaren egoera ekonomikoaren gainean, eta horreek zuzentze aldera, Dimako idazkaritza-kontu-hartzailetzako datuak emon ditu.

Lemoan zorra berreskuratuta

Legegintzaldi hasieran egoan zorra, 2014an berreskuratzea lortu eban Lemoako EH Bilduk eta datu positiboak amaitu zan urtea. Jakitera emon daben datuen arabera, Lemoak, 1.267.914 euroko altxortegiko gerakin gordinagaz zarratu eban 2014ko urtea. Igazko aurrekontuaren emaitza positiboa izan zan, 732.071 eurokoa, eta horrerri esker, eta inbersinoetan egin behar ziran ordainketak egin ostean, 640.366 euro ditue hurrengo urteetako gastu

orokorrentzako.

"Gure herrialdeak bizi izan dituan garai txarretan, zorra berreskuratzea lortu dogu, inbersinoak eginez eta Udala egoera ekonomiko ezin hobean itxiko dogu legegintzaldi amaiera honetan" azaldu dau EH Bilduk prentsa ohar baten bidez.

Diman zor bizia txikitu da

Dimako Udalak be emon ditu jakitera bere egoera ekonomikoaren gaineko datuak. Legegintzaldiaren hasieran, 2011ko abenduan, Dimaren zorra 2.321.213 eurokoa zan eta 2012ko aurrekontuan 1.246.000 eurokoa; zorra % 186, hortaz. Hiru urte geroago, 2014ko abenduan, zorra 1.086.596 eurokoa zan eta 2015erako aurrekontua 1.519.201 eurokoa; zorra % 65,2. Aurten be Dimako Udalak ildo horretatik jarraituten dau. "2015eko lehenengo hiru hilabean 90.000 euroko amortizazioa egin dogu eta martiaren amaieran zorra 966.884 eurokoa izan da. 2015eko abenduan zor bizia sarrera korrontearen % 56 izango da".

IGORRE/LEMOA

Euskerea plazara aterateko ekintzak

Erredakzioa

Lemoako Euskera Zerbitzuak, herri ginkana bat eta euskeraz olgetako familian zein parkean ekintza batzuk antolatu ditu maiatzean zehar. Familian euskeraz olgetako ikastaroa hilaren 9an izango da eskolan; herri ginkana, 16an eta euskerazko parke jolasak ikasteko saioa maiatzaren 29an.

Euskeraz olgeta euskerea maiztatzea dala sinestuta, Lemoako Euskera Zerbitzuak umeak euskeraz egitea olgetan dabizenean bultzatu gura dau. Hori dala eta, 2011n eta 2012an jaiotako umeentzat eta euren gurasoentzat Euskeraz Olgetan familian izeneko ikastaroa antolatu dabe maiatzaren 9rako. Bertan, guraso eta seme-alabak batera, jolas eta abesti barriak ikasteko aukerea izango dabe. Ikasitakoa etxean praktiketako abesti eta jolasen liburuxka eta CDa bananduko jakie partaideai. 11:00etan hasi eta goizean zehar izango da ikastaroa Lemoako eskolan. Izena maiatzaren 5a baino lehenago emon behar da.

Herri ginkanea

Gaztetxe azpian batu arrastiko bostetan eta sei eta zortzi persona bitarteko taldeak egingo dira parte hartzeako. Talde bakotzak kolore bat izango dau eta taldekoai kamiseta bana oparituko deutsee. Taldeentzako sariak be egongo dira.

Ginkana amaitutakoan, mokatutxoa egongo da parte hartzaileentzat. Ondoren, "Harro bizi euskaraz" abestiaren flashmob-a.

Parke jolasak, kalea hartuz

Euskereak kalea hartu dagian eta umeak parkeetan euskeraz egiteko olgetan, hilaren 29an eskolan, euskerazko parke jolasak ikasteko aukerea egongo da. "Horretarako, guraso zein umeai bitartekoak

eskeini gura izan jakiez, parkeko ohiko jolasak euskeraz zelan jolastu ikasteko eta barriak erakusteko. Honetan be, aurrerantzean lagungarri izango jakiezan bitartekoak bananduko jakiez: ikasitako jolasen eta horreekaz batera abesteko abestien liburuxka eta CDa" azaldu deutso BEGITURI Miren Madariaga Lemoako Euskera Teknikariak.

Berbalagun Igorren

Igorren be, euskerea kaleetara aterateko, nagusien aisialdian, hizkuntza ohituretan eragin gura dau Euskera Zerbitzuak. Helburu horregaz Berbalagun proiektua dago martxan, astean gitxienez ordubete talde txikietan euskeraz berba egiteko aukerea emoten dauan proiektua. Taldeok indartu gura dabez Igorren. Astelehenetan 09:30ean Ayarzan, martitzenetan 18:00etan Gau Loran, eguenetan Kultur Etxean 18:15ean eta barrikuetan 19:00etan Kiñu Gaztetxean batzean dira Berbalagunak. Interesautak dagozanak ondoen jatorkien taldera hurreratu leitezke.



Arratiako Musika Eskola
IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Epea: maiatzean

- Infante kalea, 2. Artea
- Astelehen, asteazken eta ostiralak
- 10:00etatik - 13:00 arte
- Tlfnoa: 94 631 73 52

- *Matrikulazioa posta elektronikoz:
arratia.musikaeskola@gmail.com

- Arratsaldez, zentroetan

ARRATIA

EH Bilduko alkategaiak Arratiarako kudeaketa eredu barria daukie helburu



Udal Hauteskundeetarako Arratiako herrietako EH Bilduren hautagaiak.

Erredakzioa

Aprilaren 24an, Igorren, EH Bilduk Arratiako alkatetzarako hautagaiak aurkeztu ebazan. Ekitaldian Arratiako udalerrietako zortzi alkategai egon ziran: Igor Menika (Arantzazu), Asier Garcia (Areatza), Igor Etxaniz (Artea), Janire Ansotegi (Bedia), Nekane Intxaurza (Dima), Beinat Anzola

(Igorre), Saioa Elejabarrieta (Lemoa) eta Zedari Jauregi (Zeanuri). Ubiden ez dau hautagairik aurkeztu EH Bilduk. Zeberion, Ana Belen Alberdi saiatuko da barriro be alkatetza lortzean.

EH Bilduk bere proiektuaren ildo nagusiak emon eta helburuak be adierazo ebazan: kudeaketa eredu barri eta gardena, alkarlana eta he-

rritarren parte hartzean oinarritutako Arratiako garapena dira helburuok.

Danontzako Arratia

EH Bilduko alkategaiak "Arratia barria danokaz eta danontzako, ausardiaz, anbizinoz eta konpleju barik eregiteko konpromisoa" hartu eben jentaurrean. Amaieran hurreratu ziran guztiak argazkia atera eben.

ZEANURI

Ipiñaburukoa, Espainiako gaztai keturik onena

Erredakzioa

Aprilaren 16an Madrilen izandako *Gourmetquesos* izeneko lehiaketan, Idiazabal jatorri deiturako hiru gaztaik lortu eben lehenengo saria. Ipiñaburuko (Zeanuri) Jon Etxebarria eta Puy Arrietaren gaztaiak urrezko domina lortu eban gaztai ketuen kategorian. Txapelketa Madrileko Gourmet Kluben Nazioarteko Erakusketan izan zan. Bertan 380 gaztaik hartu eben parte eta epaimahaia 30 dastatzailek osotu eben.

Etxebarria eta Arrieta gaztaigina ez ziran Madrilan egon, "Idiazabal Jatorri Deiturak bialdu eban gure gaztaia, gu orain etxean gagoz behar handiko sasoia dalako" azaldu deutso Etxebarriak BEGITURI. Lehenengoz aurkeztu dabe aurten Ipiñaburuko gaztaia Espainiako Gaztairik Onenaren Txapelketara. Txapelketa honetako seigarren edizioa izan bada be, atzenengo urteetan ez dala egin dino Jon Etxebarriak.

2015eko lehenengo saria

Urte asko daroa Ipiñaburuko

gaztaiak garrantzi handiko sariak irabazten, bai Euskal Herri mailan bai mundu mailan. Madrilan irabazitako honen aurretik, 2014ko zemendian, *World Cheese Awards* Munduko Txapelketan urrezko domina lortu eban Ipiñaburuko gaztaiak. Aurten, Madrilekoa izan da jaso dauan

lehenengo saria, gaztai txapelketen sasoia abuztutik zemendiara izaten da eta. Baina Zeanuriko larretan bazkatzen diran ardi latxen esneagaz egindako gaztai honen kalidadea ezetuta, aprileko sari hau 2015eko lehenengoa baino ez da izango.

Arratiako dendetan

Ipiñaburuko gaztandegian, Jon Etxebarriak eta Puy Arrietak 5.000 edo 6.000 kilo gaztai inguru egi ten dabe. Gaztaia Arratiako dendetan eta Ipiñaburuko gaztandegian bertan dago salgai.



Puy Arrieta eta Jon Etxebarria alabeagaz.

DIMA

Bizkaia eta Gipuzkoako jantzari txikiak Diman

Erredakzioa

Dimako Gazte Bari Dantza Taldeak antolatuta, maiatzaren 10ean XVII. Dantzari Txiki Eguna ospatuko dabe Diman. Bertan, Dimako jantzariak batera, Areatza, Zeanuri, Otxandio, Zornotza eta Lazkaokoak (Gipuzkoa) egongo dira, ikasturtean ikasitako euskal jantzak egin eta alkarregaz egun eder bat pasetako. Antolatzaileen aurreikuspenen ara-

bera, 150 ume inguru batuko dira.

Goizeko 11:30ean hasiko da kalejirea herrian zehar. Kalejira honetan talde bakoak jantza bat egiteko aukerea izango dau. Kalejirearen ondoren, ordubatean, alardea egingo dabe herriko plazan. Jantzariak, txistulariak eta jantza taldeetako partaideak frontoian egingo dabe bazkaria eta bazkalostean, arrastiko lauretan erromeria egongo da egunari amaierara emoteko.

ARRATIA

Bagabiltzagaz hitzarmena sinatu dau Mankomunidadeak

Erredakzioa

Hitzarmen horregaz helduai zuzendutako prestakuntza eta ikasketetarako zerbitzua ipini dabe martxan. Informazio zerbitzua aprilaren 27an hasi zan Mankomunidadearen egoitzan, eta astelaren eta egunen arrastiz izaten dira.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren lankidetzara eta finantziatzeagaz, Bagabiltzak ikasketetarako bitartekaritzara zerbitzua eskeintzen dau, Arratiako persona helduen gaitasuna hobetuteko asmoz. Mankomunidadeko iturrien arabera, "gizarte bazterketa egoeran dagozanai dago

zuzenduta, batez be andrai, etorkinai, euren trebakuntza hobetu eta eguneratu gura daben beharginai, eta, orokorrean, euren aukera personalak eta garapen aukerak hobetu gura dabezanai, trebetasunak, abileziak eta ezagutzak handituz".

Ikastaro eskeintzea

Trebakuntza eskeintzearen barruan, honeek ikastaroak dagoz: uriko ortu ekologikoak, jostuntzea, erropen birziklapena, *patchworka*, menpeko pertsonen zaintza instituzinoetan edo etxean, informatikoa, solfoa eta musikea, eta altzarien birziklapena eta barritatzea.

ARRATIA

Konposta erabilteko ikastaro praktikoak emongo dauz Mankomunidadeak

Erredakzioa

Arratian etxe askok daukie konpostagailua, eta konpostaren erabilerearen inguruko zalantzak argitzeko eta erabiltzaileen formakuntza hobetuteko Mankomunidadeak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz, konposta erabilteko ikastaroak antolatu dauz Areatzan, Diman eta Lemoan.

Hogei persona inguruko taldeak osotuko dira eta ikastaroetan konposta zelan erabili eta beste hainbat gai landuko dira: Arratiako jentek zelango konposta egiten dauan, konpost komertzial mota desbardinak eta ongari mineralak, berbarako.

Ordubete eta erdiko saioko ikastaro honeek Areatzan, Diman eta Lemoan izango dira. Areatzan hilaren 8an izango da arrastiko 17:00etan Arra-

tiano jatetxean. Hurrengo egunean Dimako Udal ortuetan saio bi egongo dira. 10:00etan bata eta 12:00etan bestea. Lemoan, barriz, eskoletako ortuan egingo da ikastaroa hilaren 13an, arrastiko 17:00etan.

Ikastaro honeetan parte hartu gura dabenak Mankomunidadea deitu behar dabe izena emoteko.

San Isidro Eguneke Zeanuriko Azokan, karpia informatiboa ipiniko dau Mankomunidadeak. Han, materia organikoa zelan kudeatu, etxeko konpostajea eginaz edo edukiontzia marroiaren bitartez, eta kalidade oneko konposta zelan lortu azalduko dabe. Baita jentearen galderai erantzun be.

Bertan, Arratian egindako konposta eta konposta egiteko materialak bananduko dira.

USTIAPEN ONENAI SARIA

Ustiapen onenari sariak jaso dabez Zeanuriko baserri bik

Okelatarako behiak hazten ditu Joseba Rekaldek Alzusta auzuneko Zubizabal baserrian eta Euskadiko okelatarako behien ustiapen onenari saria jaso eban Arkauten aprilarren 25ean. Ekitaldi berean, Jon Etxebarria eta Puy Arrietaren Ipiñaburuko gaztandegiak be Bizkaiko ardien esplotaziorik onenari saria jaso eban. Sariak emoteko orduan, gestinoa, salmenta datuak, inbersinoak eta abar hartzean ditue kontuan.

Erredakzioa

Ustiapena errentagarria izatea da gehien baloretan dan gauzetako bat. Eta errentagarria izateko, behar handia egiteaz gainera, zuzenean saldu behar dala dinoe Rekaldek eta Etxebarriak; hau da, ahal dan neurrian bitarterkariak kendu. Holan, Ipiñaburuko gaztaia gaztandegian bertan saltzean dabe batez be, eta Zubizabalako okelea, Fernando Rekalde, Josebaren anaia harategian. "Anaiak harategi bat dauka Igorren. Salmenta berak egiten dau. Familia negozioa da. Berak harategia ipini eban eta nik animaliak jagon egiten dodaz" dino Joseba Rekaldek.

Izan be, gaur egun, produktu ona egin arren, gata da baserriak bizimodua ateratea. Baserriak bertatik bizi diranak Arratian kontetako eskuetako hatzamarrak nahikoak dira Jon Etxebarriaren esanetan.

Okelatarako behiak Euskadiko Saria

Josebak negozioari 2002an ekin eutsan, gurasoai jubiletako sasoa heldu jakienean. Rekaldearrak zortzi anai-arreba dira eta baserriak danen ikasketetarako emon dauan arren, baserrian geratzea ez da izaten ebatzi erreza. Gurasoak jubiletako sasoi 20 bat behi eukien Zubizabalen eta ganadua kendu behar zan edo baten ba-

tek ha aurrera eroateko ardurea hartu behar eban. "Anaiak egin eban orduan aposturik handiena" dino Joseba Rekaldek. Momentu haretan Joseba Batz-en egoan beharrei sei hilabetetako kontratuakaz, baina anaiak behar fijoak eukan. Fernandok harategia ipini eban eta ha martxan zanean hasi zan Joseba ganadua gobernatzan lanaldi osoan.

Hainbat barrikuntza eta inbersino egin ebazan orduan eta Pirenaika errazako 120 behi inguru ditu gaur egun. Txahalak be zenbatu ezker berrehun bat. "Gureztat inportantea da amek produktino oneko behiak izatea. Urtero-urtero txahala egitea. Ondoen jaio diranak eta arazorik ez daukien hazi egiten doguz eta besteak, produktinorako ez doguzanak gura, sartzean doguz zebaderoan, hiltzeko katean".

Produktinorako behiak neguak kortan eta uda Gorbeia larretan emoten dabe. Ia 1.500 m.ko altueratik baserri ondora arte, lau taldetan bananduta dagoz behi honek beste horrenbeste larretan; Gorbeia Parkeak, zabalera handia euki arren, larre gitxi daukazalako. Horregaitik, herriko ganadu guztiak jana eukiteko, holan egin behar zala ikusi eban Joseba Rekaldek.

Talde bakotxean zezen bat, 25-30 behi eta batzuetan idisko bat

egoten dira. "Zezen gazteak beti eroaten dodaz zezen zahar bat gaz ikasi dagien. Eta gero bere aita edo zaharra kentzean danean, berak hartzean dau lur ha, eta badaki hango barri". Behi taldeak beti larre batera eroaten ditu, lur ha ezetuten dabelako, ura non dagoan dakielako eta hango bedarra jatera ohitu diralako.

Horreek gauza guztiak kontuan hartuta bakarrik lortu daiteke Euskadiko okelatarako behien esplotaziorik onena.

Ipiñaburuko ardiak Bizkaiko Saria

Gorbeia larretan be bazkatzen dira Ipiñaburuko ardiak. Etxebarriak 400 bat ardi daukaz eta Gorbeia larretara botaten ditueanean, ardiak talde bitan bananduten ditu. Holan, antzuak edo arkumeak galdu dabezanak maiatzean joango dira Gorbeia, besteak, baserri inguruan egongo dira garagarriera arte.

Ardiak zemendian hasten dira bildotsak egiten Gabonak arte. Gero batzuek jarraituten dabe eta beste batzuek ez. Orain, garagarriera arte, ardi esneagaz gaztaia egiteko sasoi da eta Jon Etxebarriak eta Puy Arrietak gaztaia egin bitartean, Ipiñaburuko landetan egoten dira esnedun ardiak. Gorbeia joateko irrikitan dagozala dino Etxebarriak "han libreago



Jon Etxebarria eta Joseba Rekalde.

sentiduten dira" eta.

Ardi honeen esnea eta gaztaginen jakinagaz, hainbeste sari jaso dituan Ipiñaburuko gaztai ketua egiten da udabarrira.

Udabarria ganadu azoken sasoi

Udabarrian ganadu azoka asko dagoz Arratian. Dimako Abeltzainen Elkarteak eta Udalak aprilarren 26an Artisau eta Ganadu Azokea antolatu eben Diman. Azoka honetan herriko ganaduak erakusten dira eta jente asko hurreratzen da ganaduok ikusi eta moxal pintxoak dastatzera.

Hurrengo ganadu azokea Areatzakoa izan da. Hau aspaldian egiten zan eta aurten errekupe-rau gura izan dabe Upokolupetza Abeltzain Elkarteok. Azokan, gaztaia zelan egiten dan erakutsi, ardi ule-mozte lehiaketa egin eta artzai

txakur erakustaldia egon zan.

Arratiako hurrengo Ganadu Azokea Zeanurin izango da maiatzaren 9an. Hau Gorbeia Parke Naturalak antolatuten dau. Gorbeia larretan ganadua daukien abeltzainak erakusten dabez ganaduok azoka honetan, txandaka. Igaz Zigoitian izan zan eta bertan egon zan Rekalde. Horregaitik ez da izango aurten Zeanurikoan.

Eta hurrengo, bailara osoan izenik handiena daukana da: San Isidrokoa, Zeanurin. Aurrekoetara ez, baina honetara eroango dauz gaztaiak Jon Etxebarriak eta ganaduak Joseba Rekaldek, "herriko feria dalako eta herrira bajatuteko". Ferietan gitxi saldu arren, feriak jenteari ganadua erakusteko eta "publizidade" apur bat egiteko balio dabe. "Eta baserria bizirik dagoala erakusteko" dino Jon Etxebarriak.

Kili-Kili Urtas denda

Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

24h Egunkari Oria

EGUNEKO OGIA
vending pan

IGORRE
Lehendakari Agirre

Psikologia orokorra
Familia eta bikote terapia
Psikoanálisis (esku hartze psikologikoa mintziak jotzeko gaitasuna eta euren (familiaz))
Sexologia
Konsulta pribatua, etxean eta on-line

Sagrario Martín Iñigo
Psikologian doktorea

San Juan sasoia 29, beheko Igoerre - 94 657 66 10
www.sagrariomartin.com - info@sagrariomartin.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 beheko
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askitasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olaxte
OPTIKA ZENTROA

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gaituta
Begiako tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es



Lanerako Langile Trebatuak

ESKAINZA EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: zati orokorra

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

DATAK

Aurrematrikula
maiazaren 25etik
ekainaren 5era

Matrikula
uztailaren 16tik 21era

Tel: 94 673 02 51
e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com



MENDIA

Zeanuritik Urkiolara bidea seinalizatu dau Joko-Alaik

Jon Urutxurtu

Joko-Alai Alkarteko mendi saileko bazkide talde batek Zeanuriko plazatik abiatuz Urkiolarainoko bidea margo zuriz eta beilegiz, ibilbide labur (PR) moduan seinalizatu eban apirilaren 19an. Aurrerantzean, bide hau egin gura dauan edozeinek galtzeako ezelango arrisku barik egiteko aukerea izango dau.

Ibilbidea Zeanuriko plazan hasten da Soloeta auzora zuzentzeko eta hemendik Makaztuira; Makaztuikit aurrera eginaz, Barazar eta Zumeltza lotzean dauzan pisteagaz topo egiterakoan "artzainen bidea" izenagaz ezetuten dan ibilbide luzeagaz (GR) egiten dau bat, Zu-

meltza eta Arkaolatik igaroz Urkiolaraino helduteko.

Joko Alaiako arduradunen arabera "martxa lasaian hiru ordu eta hamabost minutuan egin daiteke Zeanuritik Urkiolarainoko bidea; ibilbidea ez da bat be gogorra eta oso polita da; gainera, batez be gazteentzat, bide ezezaguna da".

Ibilbidearen "inaugurazio ofiziala" bagilearen 20an egingo da, Arratiako herriak San Antonioetan Urkiolara egiten daberen errogatibea aprobetxatuz; egun horretan Urkiolara oinez joan gure dabena, Zeanuritik antolatuko dan ibilbide gidatuan parte hartzeako aukerea izango dabe; urtekerea goizeko 07:30ean izango da.

FUTBOLA

**Arratia lidertzan, Ohorezko Mailatik pausu batera**

Ainhoa Duñabeitia

Arratiako gizonezkoen lehen taldeak ate joka dauka Ohorezko Maila. Atzen norgehiagoka biak irabazi ostean, gero eta hurbilago ikusten dabe euren burua Ohorezko Mailatik.

Ilusino eta gogoz beteriko taldea daukie arratiarrak eta hori zelaian igartzen da, futbol polita eta zaleen gustukoa egiten dabiz eta. Atzen norgehiagoka bietan hiruna puntu boltsikoratu dabez. Maiatzaren 1ean, etxean jokatu eban, ikustekoa zan Urbieta zelaia, zalez beterik egozan bai harmailak eta bai zelai alboak, gureai babesa emoteko. Errez irabazi eban, 3 gol egin ebezan eta Acerok bakarra.

Aprilaren 23an, Aranguren izan eban aurkari; atzen emoitzea Aranguren 1, Arratia 4.

Hurrengo partiduan Zaldua izango dabe aurrez aurre eta neurketa hori erabakigarria izango da, garai-pena lortu ezker, datorren denporaldian "Ohorezko" taldea izango da-eta Arratia.

Andrazkoak bosgarren

Andrazkoak amaitu dabe denporaldia eta bosgarren geratu dira sailkapenean. Aprilaren 26an, denporaldiko atzen norgehiagokan galdu egin eban arratiarrak. Berriotxo 2, Arratia 0.

Denporaldia amaitu dabe baina orain Euskal Kopa daukie. Hernaniren kontra jokatu dabe final zortzirenetan joan etorriko bi partidutan. Lehenengo neurketa 17an izango da Hernanin.

Arratia B, be bosgarren

Gizonezkoen bigarren taldeak be, Arratia B-k, amaitu dau denporaldia. Honek be sailkapeneko 5. postuan amaitu dabe, 47 puntugaz.



Joko Alaiako bidea marketan.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

begitu
arratia ubide zeberio**Konposta erabiltzeko ikastaro praktikoak**

Konposta egiten dozu, eta ez dakizu zelan erabili? Konpostagailua txiki geratzen jatzu? Konposta erosi dozu, eta ez dakizu zelangoa dan? Horreek eta beste gai batzuk jorratuko dira ondorengo ikastaroetan

- Maiatzak 8:** AREATZA (Arratiano) 17:00-18:30
Maiatzak 9: DIMA (Udal ortuetan) 10:00-11:30 eta 12:00-13:30
Maiatzak 13: LEMOA (Eskoletako ortuen) 17:00-18:30

Izena emoteko: **Arratiako Udalen Mankomunitateko**
94 631 17 17 telefonora deitu

Talde mugatuak

KONPOSTAJEAGAZ
DANA ONDO DOA



AZKOREA

Atutxa II.a Zeanurin jokatu eta Urrezko Aizkoraren finalean



Aitzol Atutxa.

Erredakzioa

Eusko Label Urrezko Aizkoraren banakako finala Zeanurin jokatu eta maiatzaren 9an, eguerdiko 12:00etan. Aitzol Atutxa dimoztara egongo da finalean. Atutxak binakako txapela irabazi eban martia-

ren 8an, Mugertza II.gaz batera, eta orain, banakakoa be eskuratzen saiatuko da Zeanurin. Txapelketaren finala jokatu bitartean, Perurera harrijasotzaileak erakustaldia egingo dau. Final hau, Gorbeia Parke Naturalak antolatutako II. Abere Azokearen egitarauan dago.

JAIA

Erraldoitan Areatzan

Irati Urien

Maiatzaren 9an, zapatua, Erraldoitan jaia ospatuko da Areatzan. Sestao, Zornotza, Ordizia eta Areatzako erraldoiak izango dira protagonista nagusiak, guztira hogeitun bat inguru. AKB, Sugi panpin tailerra, Peña Gorbeako Gurutzea Athletic eta Areatzako Herri Kirol Taldea dira egunaren antolatzaileak, eta hauxe egitaraua: 17:30ean erraldoi eta txotxongiloen kalejirea herritik zehar; 19:00etan asto, gizon eta andren arteko desafioa Motxo taberna-

ren aurrean; 20:00etan Pernil Urkatuaren Lehiaketea; 20:15ean jantza-kantu poteoa, Euskal Giroa taldeagaz; eta 21:45 inguruan, solomoa, urdaia, txorizoa, ardaoa eta postrea afari lez danontzat plazan. Egun berean Peña Gorbeako Gurutzea Athletic-ek urteko asanblada orokorra eta urteurren bazkaria egingo dauz.

Mendi urtekerea

Bestalde, maiatzaren 10ean mendi urtekerea egingo dau Lamino Mendi Taldeak. Saldrapo, Arralde, Atxirpe, Atxuri, Ugunako urjauzia eta Saldro-

po izango da ibilbidea, 9,5 kilometro 500 metroko desnibelagaz. Goizeko bederatzietan eleiz portalean egon beharko dau joan gura dauanak.



GOITIBEHERRAK


"Zeanin Downhill", Inertzia Kirol Federakundeko erlojupeko probak

Irati Urien

Maiatzaren 16an, "Zeanin Downhill" egingo da Zeanurin. 12:00etan egiaztapenen momentua izango da. 14:00etan gidarientzako bazkaria egongo da, eta bertarako sarrerak egiaztapenetan emongo dira. 16:00etan izango da goitibeheren lehenengo urtekerea eta 19:45ean sari banaketea egingo dau Zeanuriko

Udalak. Momentuz kategoria eta ibilgailu desbardineta hogeta zortzi pilotuk emon dabe izena. Apuntatu gura dauanak <http://www.fedei.com/es/inscripciones.asp> orrialdean sartzea dauka, maiatzaren 13a baino lehenago. Antolatzaileak adierazo dabenez seguruak ez diran goitibeherak ezingo dabe parte hartu nahiz eta apuntatu egon. Egiaztapenak pasetako beharrezkoa izango da

frenoak paretako moduan, kasku integrala, begietako protekzioa eta eskularruak eukitea.



begitu
amaria ubide zehar

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

BICIS
Arratiarron dendea
JESUS CANAS TARAVILLO
Tel. 94 630 92 20
jscanas@movistar.es
Gregorio Mendibil kalea, 12

Bizkaifisios SLK
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Arratiako merkatarien elkarte **LEHIAKETE**
AUKERATU LOGORIK GUSTUKOENA eta ...
IRABAZI 210€
Sartu www.arratia-merkatariak.com eta hautatu logorik gustukoena. Parte hartzaileen artean, AMEn gastetako, 210€ zozketatuko dira. Maiatzak Iban Kultur Etxean (Igorren)

MUSIKEA

Aiko taldeak interneten ipini dau Fasioren mendea disko-liburua**Erredakzioa**

Aiko taldearen webgunean, *Fasioren mendea* disko-liburua osotuten daben idatzizko materialak, bideoak, grabazioak eta partiturak dagoz. Disko-liburua interneten ipintez gainera, Dantzan Fasiogaz izeneko ikastaroa eskeiniko dabe Aikok eta Kulturbasque UPV-EHUK, maiatzaren 9an Bilbon.

Bonifazio Arandia Uriarte "Fasio" (Igorre, 1909-1987), joan dan mendearen Arratian jaiotako musikari herrikoirik ezagunetakoa da. *Fasioren mendea* disko-liburua 2009an argitaratu zan, Igorreko soinuariaren mendeurrenean Igorreko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz. Disko-liburu honek, testuak, argazkiak, audioko CD bat eta partiturak eta hainbat filmaketa eukazan DVD bat biltzean ditu Bonifazio Arandiaren bizitzari eta lanari errepasso sakona egi-

naz. "Material horrek ezin hobeto islatzen ditu Fasioren bizitzaren eta musika-ibilbidearen nondik norakoak. Baina aldi berean, sakonean aztertzen ditu esku-soinuaren eta euskal musika tradizionalaren arteko hartu-emonak, baita Arratia bailararen berezko ezaugarri kultural eta musikalak be" dinoe Aiko taldekoak.

Argitaratu bako irudiak

Webgunearen bitartez, testuak eta partiturak pdf formatuan eskuratu daitezke, eta ikusentzunezko materiala doban deskargatu. Diskografia atalean, Jon Iturbek Fasioren hil baino urte bi lehenago egin eutsan grabazioa be entzun daiteke. Bildutako doinu guztiak partitura eta guzti argitaratu dira, Adolfo Jainagaz transkribiduta.

Material bideografikoari jagokonez, Fasiok 1982an eta 1986an egindako ekitaldi bitan interpretatu ebazan 29 doinu bildu dira. Atal honen osagarri moduan, 1988ko zementarian, Fasio hil eta urtebete geroago, jaioterrian egin eutsien omenaldiaren irudiak sartu dira.

Liburuak 81 orrialde ditu eta Fasioren hainbat irudiz horniduta dago. Testuak Aingeru Berguicesek idatzi eta Arantza Etxebarriak euskeratu ditu, Igorreko alkatearen hitzurre bategaz.

Dantzan Fasiogaz ikastaroa

Igorreko musikariari omenaldia be

egin gura izan deutso Aiko taldeak eta horretarako, UPV/EHUK Abandoibarran (Bilbo) daukan Bizkaia Aretoan, Dantzan Fasiogaz ikastaroa antolatu dau. Ikastaroak musika eta jantzearen arteko hartu-emonak aztertuko dau eritimoaren ikuspegitik, pasodoblea, balsa, txotis, polka, boleroa, mazurka, foxa, tangoa eta habanera lango jantza herrikoi klasikoai errepasso egingo deutse. Horrezaz gainera, trikitixegaz eta panderoagaz alaitutako jantzaldia buruzko atal berezi bat eskeiniko da. Joteak, fandangoak, arin-arinak eta porrusaldeak be protagonismoa izango dabe. Ikastaroa arrastiko bostetik zortziretara izango da.

Ekimena UPV/EHUKen Bizkaiko Campuseko kultur-sareak eraturako Kulturbasque izeneko topaketa eta jarduera programazioaren barruan antolatu da.



Fasio Arantzazun Mauriziazagaz.

KONTZERTUA

Organizing jazz taldea Cornerrean**Erredakzioa**

Organizing jazz taldeak kontzertua emongo dau Areatzako The Quiet Corner-en hilaren 16an arrastiko 20:00etan. Taldea osotuten dabe Zeberion bizi dan Elsa Lizundiak (saxo-tenorra), Raul Sainz de Rozasek (gitarra), Gorka Iradundegik (hammond organoa), eta Juan Luis Castañok (bateria).

Elsa Lizundia saxofoijole eta

musika irakaslea da eta 1980ko hamarkadan arrakasta handia izan eban Dinamita pa los pollos taldean, edo Papa blues band taldean jo dau, beste batzuen artean. Aprilaren 17 eta 18an Girls in Band taldeagaz 1930eko hamarkadako andra instrumentistai egin eutsen omenaldia, 365 Jazz Bilbao-ren egitarauaren barruan.

Raul Sainz de Rozas gitarrojoleak eta Gorka Iraundegi teklisteak be, hainbat jazz taldetan jotzen dabe, tartean Kukubarre Jazz Quartet-en, Organizing taldeko beste partaideak batera. Jose Luis Castaño Bilboko Muzik Eskolako bateria irakaslea da eta ibilbide luzea dauka musika eta batez be, jazz munduan.

AISIA

Labarkara uda honetan**Irati Urien**

Zaztaparrak taldea udalekuak antolatuten dabil daborduko. Labarka aukeratu dabe, asti taldearen hogeigarren urteurren dala eta, lehenengoz Arabar Errioxa. Abuztuaren 3tik 14ra joango dira Arratiako ume eta gazteak udalekuekara.

Igorreko Kultur Etxeko atean apuntatu ahal izango da maiatzaren 15ean, 18:00etatik 20:00etara; eta maiatzaren 16an, 11:00etatik 13:00etara. Izen abizenak, jaiotza data, herria, e-maila eta telefono zenbakia beharrezkoak izango dira matrikulea

egiteko. Zaztaparrak Asti Taldekoak "udaleku mundial" honetara animetako deialdia egiten dabe.

Maiatzaren 23rako osteraren Arratiako begiraleen topaketak antolatu dabez Kiñu Gaztetxean.

Igorreko herri udalekuekako matrikulazioa zabalik

Zaztaparrak-ek herri udalekuak antolatu ditu Igorren. Bagilearen 22an hasi eta garagarriaren 24ra arte dagozan 5 asteetan Igorreko umeak aukerea izango dabe herrian bertan udalekuek gozatzeko. Matrikulazioa astekakoa izango da eta umeak eta asteko 20 euro ordaindu beharko dira, neba-arrebak izan ezker 15 euro bakotzak. Izena emon gura dauanak maiatzaren 22a baino lehenago egin beharko dau Kultur Etxeko harreraren. Gurasoak batzarra bagilearen 4an, 19:00etan izango da.

KULTURA ASTEA

Arratiako tranbiaren erakusketea Lemoako Kultura Astearen 11tik 17ra**Erredakzioa**

Lemoako Udalak, herriko alkar-teakaz batera Aste Kulturala antolatu dau maiatzaren 11 eta 17 bitartean. Kontzertuak, berbal-diak, antzerkia, mendi urtekerak eta beste ekintza batzuk antolatu ditue, tartean *Arratiako tranbia*. 50 urte *Arratiako tranbia barik* erakusketea. Erakusketa hau aste osoan egongo da ikusgai Elizondoko Kultur Gunean.

Arratiako tranbiaren erakusketearen inaugurazioak emongo deutso hasikerea aste kulturari. Erakusketea, aste egunetan 18:00etatik 20:30era eta zapatudomekan 11:00etatik 13:00etara

eta 16:00etatik 19:00etara egongo da ikusgai eta inagurazioa hilaren 11n izango da, Juanjo Olaizola Euskal Trenbidearen Museoko Zuzendariaren berbal-diagaz. Hau, arrastiko 19:00etan izango da.

Mendira joateko hiru aukera egongo dira aste horretan Ganzabal Mendi Taldeagaz batera. Lehenengoan, eskola-umeak Zugatz Eguna ospatuko dabe eskolatik 09:30ean urten, San Antolinera igon eta han zugatzak landatuz. Bigarren urtekerak zapatu goizean izango da. Lemoatxan (363m.), Ganzabalek Mendien Lehiaketako sari banaketea egingo dau han. Eta hirugarren zitea, domekan da.

Orduan, Mazo (1.083m.), Mota (1.319m.) eta Cueto (1.362m.) tontorrek zapalduko dabez Ganzabaleko mendizaleak.

Eguaztenean, "Aniztasunaren alde, homofobiari ez" berbal-dia egongo da Jubiladuen Etxeko goiko aretoan 19:00etan. Maiatzaren 17a homofobia, lesbofobia eta transfobiaren kontrako eguna izaten da eta horren harira antolatu dau udaleko Bardintasun Zerbitzuak berbal-di hau.

Kontzertuak, antzerkia eta herri ginkana

Aste kulturalaren barruan kontzertu bi egongo dira. Lehenengoan, Arratiako Musika Eskolako



Domekan, barriz, antzerkia ikusteko aukerea egongo da. Arrastiko zazpiretan *Lingua Nabajorum* euskerearen inguruko umorezko antzezlanak ekarriko dabe kiroldegira arrastiko zazpiretan. Baina ez da hau izango euskereagaz ondo pasetako aukera bakarra. Izan be, Euskera Zerbitzuak herri ginkana bat antolatu dau zapatu arrastirako. Gaztetxe azpian izango da, arrastiko bostetan hasita eta bertan parte hartzeako udaletxean emon behar da izena maiatzaren 7a baino lehenago.

Eskolan ekitaldi gehiago

Aste kulturalak presentzia berezia izango dau Lemoako eskolan. Liburutegiak liburuak eroango dauz hara, ikasleak literatur solasaldiak izango dabez idazleakaz, kulturartekotasuna lantzeako Munduko Jolasak eta tailerrak egongo dira, *cup song*, erakusketak, ikasleen omenaldiak eta abar.

ikasleak eskeiniko dabe egunean, hilak 14, eleizan arrastiko 19:00etan. Bigarrena, barriz, Estankonatarak, musika eta poesia buztartuko ditu ikuskizun honek. Barikuan izango da Jubiladuen Etxeko goiko aretoan arrastiko zazpiretan.

ANTZERKIA

Umeentzako antzerki jantzarria Igorren



Oneka marrazoa antzezlan.

Erredakzioa

Maiatzaren 9an, arrastiko bost t'erdietan, Ene Kantak proiektuko kideak *Oneka marrazoa* izeneko antzerkia taularatuko dabe Igorreko Lasarte Aretoan. Eurek sortutako kantu barriak eta freskoak, herri kantu moldatu eta gaurkotuak abesten dabez lan honetan, umeak errez imitetako koreografiak erabiliz.

Protagonistak Eneko eta Nere dira. Eneko eta Nere kezkatuta dagoz Lur planetea sufriduten dagoalako: euririk ez dau egiten, ur eskasia dago, kotxe lar... eta eurak ezin dabezalako putzuak saltau, gehien gustetan jakien olgetea. Liburu majikoa hartuta ur bila joango dira eta *Oneka marrazoa* ezetuko dabe.

ERAKUSKETEAK

Artearen leihoak Igorreko Erakusketa Aretoan



Erakusketea.

Erredakzioa

"Bakoitza bere leihotik begira, horizonte bera dakusagu aurrean. Arnasa hartzen dugu artearen leihotik; bertatik begiratzeko diogu bizitzari batzuetan, ihes egiten besteetan. Zabaldu zigun zirrikitia Ines Medinak eta bakoitza bere tresnekin eta bere berezko erritmoarekin leihoa zizelkatzen dihardugu. Erakusketa honetan gure kolpeen printzak aurkituko dituzu eta gure erritmo desberdinen oihartzuna entzungo" berba honek aurkezten dau Maite Artabek maiatzaren 9tik hilaren amaierara arte Igorreko Erakusketa Aretoan egongo dan erakusketea.

Arantza Pineda, Encarna Cepeda, Elena Solatxi, Maite Artabe Urkiri, Marian Daubagna, Marisol Calzada, Maritere Bilbao Amuriza,

Maxima Kerr, Miren Bilbao, Rosa Calzada eta Tere Uribe-Etxebarria artisten lanak dagoz ikusgai, *Ezaguera kontzientea bakoitzaren berezko sortze prozesuan* izeneko erakusketa honetan. Artista honek guztiak Ines Medinak artista eta ikerlari plastikoak Igorren gidatutako ikastaroetan hartu dabe parte eta ikastaro horreen emaitza dira erakusten diran lan artistikoak.

Berezko sortze prozesua

Ikastaro horreetan, marrazketea, margoa eta eskulturearen teknika eta kontzeptu plastikoez gainera, ikasle bakoitzak berezko sormenerako behar dauan metodo berezia deskubridu eta erabilten dau. Hori dala eta, erakusketa hau oso ugaria da teknika, kontzeptu eta estiloi jagokienean.

FILMA

Ibon Izaren Txakile filmak irabazi dau Bertsomovieda Lehiaketea

Erredakzioa

Ibon Iza zine zuzendari eta bertsolariaren *Txakile* filmak sari bi izan ditu Bertsomovieda bertsoak eta zinea buztartzen dituan lehiaketan: sari nagusia eta publikoaren saria. Sari banaketea maiatzaren 8an izango da Beasaingo Igartza jauregian. *Txakile* filmak Igorreko Luzetu Barik Film Laburren Lehiaketan bere saria izan eban.

Beren-beregi lehiaketa honetara aurkezteko egin ebala filma azaldu eutsan Izak BEGITURI martian, filma lehiaketara aurkeztu barri zanean. Bertsomoviedak egilearen pasino bi lotzean ditu, zinea eta bertsolaritza, eta lehiaketa honetan Bizkai euskeran apenas ezer aurkeztu dala ikusita,

eta hemeko euskalkiak presentzia izateko egin eban Izak saritua izan dan filma. "Gipuzkoan oso errotuta dago lehiaketa hau eta orain arte Bizkaitik apenas aurkeztu da ezer. Horregaitik gura izan genduan, gurea eta geure euskalkian aurkeztea, Euskal Herrian aniztasun handia dagoalako" esan eban orduan.

Diman grabautu

Txakile Diman grabatu zan egun bakar baten eta kanpoztar bat zelan sartzean dan bola jokoan kontetan dau. Ehun lagun inguruk hartu eban parte grabazino egunean. *Txakilen* Dimari erreferentzia egiten deutsien gauza asko dagoz eta dimoztar ezagunak aktore lanetan.

ZINE KLUBA

The Who, Sex Pistols eta Nick Cave-n musikea pantaila handian

Erredakzioa

Zine musikala ikusteko aukerea ekarriko dau Igorrera oraingoan zine klubak. *Tommy* The Who taldearen musikala, *24 Hour Party People* eta *20.000 days on earth* filmak musikaz blaituko dabe Lasarte Aretoa. Hilaren 14ean, 21ean eta 28an, arrastiko zortziretan izango dira saioak.

Zine musikari eskeinitako ziklo honetan, *Tommy* (Ken Russell, 1975) filma ikusteko aukerea izango da Igorren. Film honek The Who taldearen izen bereko rock opera pantailaratuten dau. Aktore ezagunak eta musikari handiak egiten dabe behar bertan: Roger Daltrey, Oliver Reed, Anne Margret, Tina Turner, Eric Clapton eta Elton John beste batzuen artean. Filmak Tommyren istorioa kontetan dau. Tommyk umetan amaren maitalea bere aita hiltzen ikusiko dau eta traumak jota, itsu, gor eta mutu geratuko da. Urte batzuk geroago, *pinball*-ean jokatzen hasi eta izar bilakatuko da.

Sano kritika ona izan eban bere sasoian eta klasiko bihurtu da.

DUNBA

Arteakoak... oraingoan pirata!!

Arteako 2. zikloko ikasleak

Gu, Arteako 2. zikloko ikasleak gara eta martiaren 9tik 11ra, Piraten Etxera joan ginan, eskola osoa, 2-3 urtekoak izan ezik.

Piraten Etxea, Pasai Donibanen, (Gipuzkoan) dago. Goizeko bederatzia eta erdietan eskolatik urten ginan eta ia ordu bi behar izan genduzan hara heltzeako. Heldu ginanean, lau pirata gure zain egozan: Aixa, Xaxa, Kattalin eta Morgan. Maletak hartu eta etxe barrura sartu ginan.

Logela handi bi egozan, logela baten 4-5 urtekoak eta 1. ziklokoak sartu ziran eta bestean 3. ziklokoak eta gu. Maletak itxi eta irakasleak batera ingurua ezetutera joan ginan.

Ekintza eta jolas desbardinak egin genduzan, adibidez, Asterix eta Obelix, Altxorraren bila, Musika kaja, Txartelen jolasa... eta itsasontzi baten montau eta gure piratakaz batera itsasontzian buelta bat emotera joan ginan. Portutik urten eta "zazpi itsasoak" zeharkatzera joan ginan baina bat-



Itsasontzia Pasai Donibanen.

batean... Itsasontzian zarata arraro bat entzun zan eta barkuaren motorra puskatu egin zan. Ez genduan ulertzen zer gertatzen zan eta irakasleak eta begiraleak, gu ez ikartzeko bromak bat zala esan euskuen baina gu, zerbait

arraroa gertatzen zala konturatu ginan. Begiraleak beste itsasontzi batera deitu eutsien eta handik hamar minutura, gitxi gorabehera, gure bila etorri ziran. Irakasle eta begiraleen laguntzeagaz, beste itsasontzira sartu ginan eta holan



guztiok, apur bat urduri baina poz-oz portura heldu ginan.

Gau horretan, afaltzen gengozala, begiraleak, holangorik ez zala inoz gertatu esan euskuen. Gu momentu horretan barreka hasi ginan. Ez jaku inoz ahaztuko bizipen hau, eta inoz, Piraten Etxera bazoazie ez ahaztu gure esaldiak esaten: "Aio Pelaio", "Muxu, muxu" eta "Uhh yeahhh".

AGENDEA

MAIATZAK 4
BEDIA

17:00etatik 20:00etara eta hilaren 15a arte, kirolarientzat bagilan egingo dan osasun azterketarako izen emotea eta maiatzaren 30ean egingo dan Getariako Balentziaga museora urtekerarako izen emotea liburutegian.

Hilaren 15era arte, Gabonetan egindako jardueren argazki erakusketea liburutegian.

IGORRE

Zazparrak-ek antolatutako Herri udalekuetan izena emoteko epea zabalik. Kultur Etxean.

16:45ean topaketa interkulturalak.

LEMOA

Hilaren 29ra arte, Euskal Jairako txartelak udaletxean salgai. (Euskal Jaia bagilearen 6an).

MAIATZAK 7
LEMOA

19:00etan, *Fuego sobre el Marmara* dokumentala, Malu Egiluzek aurkeztuta. Jubiladuen Ebeko goiko aretoan.

MAIATZAK 8
AREATZA

17:00etan, Arratiako Udalen Mankomunidadeak antolatuta, konposta erabilteko ikastaro praktikoa Arratiano jatetxean. Izena emoteko, 94 631 17 17.

DIMA

Andraizeak antolatutako Nordic Walking, marba nordikoa, ikastaroan izena emoteko atzen eguna. Izena emoteko: andraizea@gmail.com-era idatzi edo 656 728 340 deitu. Ikastaroa hilaren 16an da.

19:00etan, Diman etxean gura doguz presoan aldeko konzentrazioa.

IGORRE

20:00etan, Zugan Ni, Gazteen VIII. Antzerki Jolasgunea. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

19:00etan, bertoko Bola Txapelketako botaldia. Ermitabarriko bolalekuan.

MAIATZAK 9
AREATZA

Parkebeak antolatuta, Bizkaiko Parke

Naturaletako basoko haragijaleen bideoen erakusketea, Eduardo Bidaurrezagaren laguntza.

17:30ean, erraldio eta txotxongiloen kalejirena hermetik zehar; 19:00etan, asto eta gizon-andren desafioa Motxo aurrean; 20:00etan, Pemil Urkatua Lehiaketea. Saria: pemila, gaztaia, 3 litroko ardao botilea eta ogia; 20:15ean, jantza-kantu poteoa Euskal Giroa taldeagaz; 21:45ean, danontzako afaria plazan: solomoa, urdaia, txorizoa, ardao eta postrea. AKKBk, Sugoi panpin tailerrak eta Peña Athletic-ek antolatuta.

DIMA

10:00etan, Arratiako Udalen Mankomunidadeak antolatuta, konposta erabilteko ikastaro udal ortuetan. Izena emoteko, 94 631 17 17 telefonora deitu.

19:30ean, GED Joskile Eguna.

IGORRE

09:00etan, Igorreko Udalak jubiladuen laguntzeagaz antolatuta, mendi ibilaldi erreza. Aretoa, Arantzazu, Artabe, Biskerre, Salbide, Argiña, San Adrian, Azpuru, Iturbia, Aretoa. Gero, hamaiketako.

Gazte eztabaidak Inizituk antolatuta. 17:30ean gazte eztabaida zabala Kultur Ebeko plazan. 19:00etan triki-pintxo-poteoa. 20:30ean Karaoketa danontzat Kiñun.

17:30ean, umeentzako antzerkia Ene kantak *Onea marrazoa*. Lasarte Aretoan.



Gazteen antzerkia Lasarte Aretoan

Markeliñe Konpainiaren Zugan Ni antzerki jaialdiaren 8. edizioa izango da aurtengoa. Ekimen honetan Durango, Iurreta, Elorrio, Amorebieta eta Igorreko 13 eta 18 urte bitarteko gazteak hartzean dabe parte.

Markeliñe Konpainiaren programan parte hartu daben Arratia Institutuko talde bik, ikasturtean zehar landutako antzezlanak antzeztuko dabez herrietako eszenalekuetan. Antzezlanok, *Gutun izkutuak* eta *Cabaret we can* dira. Maiatzaren 8an, 20:00etan taularatuko dabez antzezlanok gazteak Lasarte Aretoan.

18:00etan, *Ezaguera konszientea bakoxaren berezko sortze-prozesuan* erakusketearen inaugurazioa. Musika eta jantza ikuskizuna. Hilaren 31ra arte egongo da Kultur Etxean.

22:00etan, zinea *El nuevo exotico hotel Marigold*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Familian Olgetan Euskeraz Lemoako eskolan.

Arantzeko jaiak. 11:30ean txupinazoa; 11:40an iturria paseo musikatua; eguerdian, kopaua; arrastian txapelketak: briska, igel-toka, dardoak eta tortilla; iluntzean Daltonarrak musika taldea.

ZEANURI

10:00etan, II. Abere Azokea. Zaldi, behi, ardi eta ahuntz erakusketea eta Gorbealdeko produktuen salmentea; 12:00etan, 2015eko Urrezko Aizkoraren Eusko Label Saria. Goizean artisautza erakusketea eta musikea. Gorbeia Parke Naturalak antolatuta.

MAIATZAK 10
AREATZA

09:00etan, Lamino Mendi Taldeak Saldropo-Arralde-Abirpe-Abxuri-Ugunako urjauzia-Saldropo urtekera. Eleiz portalean.

DIMA

Dantzari Txiki Eguna. 11:30ean, kalejirena; 13:00etan, alardea plazan; 16:00etan, erromeria (plazan edo frontoi bikian, zehaztu barik).

IGORRE

11:00etatik 15:00etara Eizu Change azokea Kiñun. 17:00etan, umeentzako zinea *Cenicienta*; 19:30ean zinea *El nuevo exotico hotel Marigold*. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Mendi urtekera Aratz.

20:00etan zinea *Un hogar en el fin del mundo*. Udaletxeko 2. solairuan.

MAIATZAK 11

IGORRE

16:45ean topaketa interkulturalak.

LEMOA

19:00etan, *Arratiako tranbia. 50 urte Arratiako tranbia barik* erakusketearen inaugurazioa. Juanjo Olaizolaren berbaldia Elizondoko Kultur Gunean. Erakusketea hilaren 17ra arte.

MAIATZAK 12

LEMOA

09:30ean, Zugatz Eguna. Eskolatik San Antolinera.

MAIATZAK 13

LEMOA

17:00etan, Arratiako Udalen Mankomunidadeak antolatuta, konposta erabilteko ikastaro praktikoa eskolako ortuan. Izena emoteko, 94 631 17 17.

19:00etan, "Aniztasunaren alde, homofobiari ez" berbaldia. Jubiladuen Ebeko goiko aretoan.

MAIATZAK 14

IGORRE

20:00etan, zine kluba, Musikaz blai zikloa *Tommy* (Ken Russell, 1975). Lasarte Aretoan.

LEMOA

Gazte eztabaidak Inizituk antolatuta. 17:30ean txoko desbardinez gozatzeko aukerea: musikea, pintura, malabareak... 18:30ean, gazte eztabaida zabala. 19:30ean Koktel Lehiaketea. Irabazlearen edabea txosnetan zerbitzatuko da jaietan.

19:00etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen kontzertua eleizan.

ZEANURI

19:30ean, Bilboko Txistularien Banda Kultur Etxean.

MAIATZAK 15

IGORRE

18:00etatik 20:00etara, Zazparrak udalekuetara joateko izen emotea. Kultur Ebeko atean.

20:30ean Mikel Inunziaga "Inun" bakarariaren kontzertua Kiñu Gaztebean.

LEMOA

19:00etan, Igor eta Borja Estankonak, *Estankonatarak: Poesia eta Musika*. Jubiladuen Ebeko goiko aretoan.

ZEANURI

San Isidro Eguna. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ZEBERIO

San Isidro jaiak Ermitabarri.

19:30ean, Oihan Vegaren monologoa "Zergaitik praktiketan dogu sexua erderaz?". Udaletxean.

MAIATZAK 16

AREATZA

20:00etan, jazz kontzertua Organizing taldeagaz The Quiet Corner-en.

DIMA

10:00etatik 13:00etara, Nordic Walking (marba nordikoa) ikastaroa.

V. Nekazal Punk. 12:30ean zanzantzarrak.

13:00etan Orkrestagaz kalejirena. 14:30ean Paella Txapelketea. 17:00etan antxinako jokoak.

19:00etan kontzertuak.



IGORRE

11:00etatik 13:00etara, Zazparrak udalekuetara joateko izen emotea. Kultur Ebeko atean.

19:00etan, Udabari Jaia. AMEren webgunearen aurkezpena, Xaiborren kontzertua eta txokolatea. AME antolatuta. Kultur Etxean.

LEMOA

Ganzabaleen sari banaketea. Lemoaba (363m).

17:00etan, Lemoako Euskera Zerbitzuak antolatuta, herri ginkanean. Gaztetxe azpian.

ZEANURI

12:00etan, goitibeheren jaitzirearen aurkezpena eta bidearen ikuskapena; 16:00etan, goitibeheran jaitzireara Oruetik plazara; 20:00etan, Udabari Kontzertuak Andra Mari parrokian.

MAIATZAK 17

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Canción de mar*; 19:30ean, zinea *El capital humano*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendí Taldeak Mazo (1083m)-Mota (1319m)-Cueto (1362m).

19:00etan, *Lingua nabajorum* antzezlana Kiroledgian.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

PISUA SALGAI

Pisua salgai Artea. Biziterra sartzeko moduan. Eguzkitsua. Deitu 665 739 936 telefonora.

PISUA SALGAI

Igorren. 3 logela, saloia, komuna eta sukalde. Biziten sartzeko moduan. Sano-sano argitsua eta eguzkitsua. Kalerantza emoten dau.

115.000 eurotan. Deitu 677 951 606 (Iru).

HOZKAILUA SALGAI

Hozkailua furgoneta zein karabanarako. la barria, hile bitan erabilita. 630 419 476 edo 94 631 71 45 telefonora deitu. Rosa (Artea).

TRIKITIXEA SALGAI

Zero Zetto markakoa. Profesionala, 4 abotsetakoa. Si bemolen afinauta. Baltza. Primeran dago. 1500 eurotan, dendan baino 900 euro merkeago. Telefona 677 951 606.

DANERIK

BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketarako egiten dodaz. Kobeduna 658 591 307.

PINTURA IRAKASLE BILA

Norbait prest egongo balitz pintura irakasteko

eskola orduetatik kanpo Igorre aldean 10 urteko neska pare bateri, seguru konponduko garala. Interesatuak lcbilbao@gmail.com erabili, mesedez.

ETXEAK EDO GELAK ALOKAIURUAN

Conil de la Fronteran etxeak zein gelak alokatzen dira. 647 126 074 Rosario.

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Baserrian biziteko lagun bila nabil (Zeberio). Bilbotik ordu erdira eta herrigunetik (denda, mediku, taberna...) 10 minutura oinez. 200 euro personako, gastuak barne. Interesatuak deitu 687 338 515 telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

3 gela, bainu bi, saloi handia. Altzariak ditu. 629 716 764.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Onea marrazoa* antzezlenerako.

Olaja Gurtubai (Dima)
Xabier Iturriaga (Areatza)



2 Axpe Goikoak emondako Garena txakolinaren kutxatxo.

Mateo Pagazaurtundua (Laudio)




3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Gauontz. 2.- Letra bat. Zilbot.
3.- Osmioa. Lasai. 4.- Motz. Letra bat.
5.- Talioa. Berrogeta hamar erromatar.
Berkelioa. 6.- Bokala. Dardara.
7.- Oso. Edabe garbi. 8.- Uda garai. Bat
erromatar. 9.- Lasaitu.

GOITIK BEHERA

1.- Alaitasun. 2.- Mila erromatar.
Errusiako mendebaleko ibaia. Izen
atzizkia. 3.- (Atz.) Begitu. Letra bat.
Txispa. 4.- Lodikote. 5.- Arrautzaren
formako. Bokala. Errepetiduta,
kontuz. 6.- Pinu. Zurrumurruaren
onomatopeia. Azken bokala.
7.- Poeta.



Topau korta baten egon leitekezan zazpi gauzen izenak.

Z	A	R	T	A	K	I	N	A	S
O	K	O	D	A	I	N	A	T	E
R	R	T	A	K	M	A	H	E	A
A	U	Z	T	L	A	G	I	I	K
M	E	O	B	I	A	R	H	O	R
E	B	A	L	U	T	E	O	N	I
I	Z	E	K	U	B	L	R	K	U
S	E	A	S	K	A	I	E	A	J
A	A	D	E	G	I	K	L	O	Z
B	E	R	E	B	I	A	H	U	N
I	S	U	D	A	H	P	E	L	O
M	O	R	E	A	Z	K	O	M	A
I	G	E	X	K	U	R	E	B	I
T	O	T	A	P	E	N	A	R	T
U	S	D	I	L	E	B	U	E	R

AKI MI KO

Igorren
Menika



AKITEGIA
GAV & LORA
IGORRE

ZEKUTZE
JATETxea
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko
eta modernoan
ebagiten dogu
Bixarra egin eta
txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober 630 743 543
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

LEHENENCO LITERRA KUXTAN
%15eko DESKONTUA
LESOREAK
basolo Emaldi
Abokatuak
620. 57.86.04
asierabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurria egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 55 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94
**Esposizinoa eta
fabrika Lemoan**
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUETAN
ONDASUN HERRIZINEN
ASIGURUETAN
Sabino Arana, 3 Thoa, 94 673 71 41 - Fax: 94 673 94 91 - 48140 IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

KIRRU * ILEPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-por: urrozul@euskalnet.net

IRENE BILBAO BENGOA

"Ikusi daigun euskerea aberastasun bat dala, eta gehien gustetan jakuzan gauzak euskeraz egin ezkerro ondino be atraktiboagoak dirala, glamour apur bat"

Igorreko Euskera Plana, Berbalagun, zein Batzeko Euskera Plana, urteetan ibili da Irene Bilbao euskerearen bultzatzaile aktibo eta nekazekin lez. Orain hiruretako baten be ibili ez arren, agoan eta bihotzean ez dau euskerarik falta. Gure hizkuntzea abiapuntu, Arratiako egoerari errepaso bat emon deusagu, Korrikaraino helduz. Izan be, Ainhoa Mendia banatzaileagaz batera berak eroan eban Zertuko lekukoa presidenteorde izanik.

Irati Urien

Agirikoa da euskereagazko daukazun inplikazioa.

Bai. Azken baten etxean danok euskeraz egin dogu betidanik. Pentsetan dot sentimentu bat dala, baita gogoa be.

Eta jentea, inpliketan da? Zelan ikusten dozu egoerea Arratian?

Batzuetan optimistagoa naz eta nahiko ondo dagoala pentsetan dot. Umeak euskeraz ikusten dodaz, nagusiak be bai... alde makalena gurasoak gurasoen artean egiten dabena da igual, baina hor be aldiak dirala pentsetan dot. Bestalde batzuetan institutuko ikasleak erderaz entzuten dodaz, eta eskolakoak be bai. Nik beti esan deutset nireai erdere be ikasi eta praktikau egin behar dala,

baina behintzat ohiturea beti euskeraz izan daitela gero.

Igorren eta Arratian antzera esango neuke. Adibidez kanpoko paisajea gero eta euskaldunago ikusten da, eta sikanan ikusten dozunean erderaz bakarrik dagoala txokau egiten dau. Hori esanguratsua da, ezta? Baina ondino badago nondik ibili.

Formula magikorik?

Ez dakit. Nik uste dot euskerea era atraktibo baten agertu behar dala, ez dala gauza pobrea izan behar. Ikusi daigun aberastasun bat dala, eta gehien gustetan jakuzan gauzak euskeraz egin ezkerro ondino be atraktiboagoak dirala, glamour apur bat. Hori zelan egiten dan... erreza izango balitz oraingoz eginda legoke.

Arratian Batz izan zan Euskera Planean aurrendari, Udala bera

baino lehenago.

Bai, hamabost urte inguru izango dira. Sortu zanean egon nintzan. Lehenengotan lehenengo beharra hizkuntza paisajea aldatutea izan zan, behintzat kanpotik ikustea. Orain uste dot horretan asko aldatu dala. Gauza gehienak euskeraz dagoz, edo euskeraz egoteko aukerea dago. Kanpora begira be enpresa euskaldun bat gara, kanpora idazten diran gauza guztiak nahiz eta beste hizkuntzetan egon euskeraz be badagoz. Adibidez Txinarrako gutun baten txineragaz batera euskeraz be idazten dogu mezua, nahiz eta seguruenik eurek ulertu ez, enpresa euskalduna bagara gurea be agertu daitela. Gure artean identifikata gagoz nortzuk gura dogun euskeraz egitea. Erramintak dagoz horretarako, klaseak emoten dira eta jentea inplikata dago. Momentu honetan baleteke krisia dala eta diru gitiago erabiltea horretarako eta hori ikusi egiten da baina halanda be jentea konzienziata dago. Atzenez jente barria datorrenean hori erakusten jako, apur bat bide bat da sartu eta beste persona batzuk ezetuteko. Ni hasi nintzanean askoz gitiago izaten ginan, gogoan daukat enpresa batzukaz topaketak eta jaialdiak egiten genduzala, gauza atraktiboak eta polita izaten zan.

Berbalagunen ibilitakoa be bazara, ezta?

Bai. Niretzako oso aberasgarria izan da. Euskaldun zahar moduan egon naz bertan beste persona batzukaz, euskaldun zaharrak izan zein euskaldun barriak izan, apur bat euskeraz berba egiteko ohiturea galduta eduki dabena. Astean baten alkatu eta berba egiten genduan, konpromiso bakarra presentzia zan. Esan behar dot, nire Berbalagunetik pasau diran danakaz euskeraz egiten dogula gaur egun. Kalean ikusi eta euskeraz egiten dogu berba. Askok lagundu nau eurak soltetan baina nik euskera gitiago egiten dabena bildur barik berba egiten be bai. Atzenez ikusi ezkerro persona bateri kosta egiten jakola igual errezagoko pasetan zara er-



derara, eta ez dago zertan. Orain horreez persona guztiakaz euskeraz egiten dot. Esango neuke urinetik ikusten nabenean erderaz badabiz euskerara kanbietan dabela berbea, apurtu bat polizia beharra egiten dot eta ez gurata, baina sensazio hori daukat. Dana dala orain horreez personakaz euskeraz egiten dot ez-lango problema barik, eta beste batzukana hurratuteko be errezasuna emoten deuste.

Zertuen proiektu nagusia BEGITU da, Arratian euskerazko hedabide bakarra papelezko edizioan. Eskualdeko euskerearen zertu mesede?

Niretzako BEGITU betidanik izan da oso gauza polita. Beti gogoagaz hartuten dot etxera helduten jatanen, eta lehenengo-lehenengo barri danak ikusten dodaz. Hurrekoa da. Orduan irakurten dozun guztia ezetu egiten dozu edo oso hur geldituten jatzu. Eta hori guztia euskeraz egoteak, euskeran gehiago inplikau arazotea egiten dau. Atraktiboak dala uste dot, umeak zeozer ezetuten zein

irakurten dabe; eta gainera, bizkaieraz egonda persona nagusientzat be ez dakit, gure etxean adibidez amak inoz ez dau euskeraz irakurri eta BEGITU sikanan ikusi egiten dau. Jente gehienak gogoagaz hartuten dau-lakoan nago. Euskeraz ez dakienak be titularra eta argazkiak begituten ditu. Pentsetan dot baietz, mesede egin deusala Arratiari euskera aldetik besteak beste.

Korrika berezia izan da aurten goa zuzetaz. Lekukoa eroan eta beharleku dozun Batzen aurrean semearengandik jaso.

Dana. Dana nahastuta. Egun guztia saltoka ibili nintzan, sano nerbiosa. Berez Korrikak asko emozionetan nau. Aurten lekukoa eroatea eta gainera semeak emotea itzela izan da, oso-oso polita. Sano emozionantea izan zan, argazkian be ikusten da. Hainbeste jente... itzela. Gordeta daukadaz BEGITU, petoa eta danak. Kuriosidade lez orain dala hamalau urte be lekukoa eroan neban, Batzeko, eta aurten leku bardinean hartu neban. Kasualidade asko.



ZULAI BAR
ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA

LANERAKO PRESTATU ZAITEZ

ZULAI BARREKO ATEAK ZABALIK DAGOZ. ESKATU HITZORDUA. AURREMATRIKULAK MAIATZAREN 25ean. EMAN IZENA.
www.zulaibar.org Tel: 946739116

15-17URTE, eta EZ DUZU GRADUATURIK?

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOA (P.C.P.I.)

- ERDI MAILAKO ZIKLOETAN IKASTEKO AUKERA ESKAINTZEN DAU.
- LANA AURKITZERAKO ORDUAN TITULUAK DBH("ESO")ko GRADUATUAK BESTEKO BALIOA DAUKA
- 22 URTETIK GORAKOAK KONPETENTZIAK EGIAZTATZEN BADITUZTE OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA TITULUA JASO DEZAKETE.

Ikastaroa TROKELGILE DOITZAILEA AJUSTADOR MATRICERO

KONTRATATZEKO KONPROMESUA

Langabetuentzat %100ean diruz lagundutako ikastaroa 350 ordu **Hasiera: 2015eko ekaina**

FORMAZIO DUALA IKASTEKO ETA LAN EGITEKO PROGRAMAK.

KONTRATU EDO BEKAZ LAN EGITEKO AUKEREA

Ikastaroa CNC MAKINAK PRESTATU ETA PROGRAMATZEKO

Langabetuentzat %100ean diruz lagunduta

Hasiera: maiatzaren 15a (260 ordu)

HEIDENHAIN ZENBAKIZKO KONTROLA ikastaroa (80 ORDU)

Langabetuentzat %100ean diruz lagunduta

Ikastaro hasiera: maiatzaren 15a